

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### IRUÑA OKAKO UDALA

#### Hasierako onespena ematea Iruña Okako hiri antolamendurako plan orokorrari

Iruña Okako Udalak, 2019ko urtarrilaren 30ean balio osoz egindako osoko bilkuran, erabaki zuen hasierako onespena ematea Iruña Okako udalerriko hiri antolamendurako plan orokorrari, eta jendaurrean jartzea plan orokor hori eta dagokion ingurumen azterlan estrategikoa.

Ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko lurzoru eta hirigintzarenak, 90.5. artikuluan eta abenduaren 9ko 21/2013 Legeak, ingurumen ebaluazioarenak, 21. artikuluan xedatzen dutena betez, jendaurrean jartzen dira bi agiriak bi hilabetez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Iragarkia argitaratuko da, halaber, iragarki taulan, udalaren web orrian ([www.irunadeoca.com](http://www.irunadeoca.com)) eta "Diario de Noticias de Álava" egunkarian. Epe horretan, interesdunek aukera izango dute espedienteak aztertzeko Iruña Okako udaletxeko idazkaritzan, jendea hartzeko ordutegian, eta udalaren web orrian ([www.irunadeoca.com](http://www.irunadeoca.com)), eta egoki jotzen dituzten alegazioak aurkezteko.

Bat etorritz Lurzoru eta hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 85.3. artikuluan jasotakoarekin, era guztietako onespen, baimen eta lizentziak etenda geratzen dira bi urteko eperako, gehienez, xedapen berriek indarrean dagoen hirigintza araubidea aldatzea dakarten esparruetan.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Langraiz Oka, 2019ko otsailaren 21a

*Alkate-lehendakaria*

**JOSÉ JAVIER MARTÍNEZ GARCÍA**